



## **GART'15**en parte hartzeko epea irekita dago

(Garrobi arte-kultur festibala / Festival artístico-cultural Garrobi)

**GARROBI** irabazi-gabeko arte kultur elkarte bat da, zeinek Getxo eta inguruetako arte-kultur eskaintza indartzea zein bertoko artisten produktuak erakustea duen helburu. Sorkuntza garaikideak normalean ikusten ez diren leku zein egoeratan sustatzen ditugu.

Urtean zehar, Garrobik, programazio kulturala garatzen du. Hurrengo ekainak 27an ekitaldi goren moduan, GART jaialdia antolatuko da, non arte-kultur jarduerak aurrera eramango diren Getxoko inguruetan. Lehenengo urte honetan, non stop! eta adin eta gustu guztietarako izango den egun osoko programa antolatuko dugu Algortan; non erakusketak, kontzertuak, antzerkiak, *performance*-ak, proiektzioak, poesia irakurketak, hitzaldiak eta askoz gehiago egongo den! **Kolorea, magia eta irudimena protagonistak izango dira egun batez gure herriko kaleetan!**

Horregatik, **GART'15**en parte hartzeko epea ireki dugu, zein ekainak 27an izango den, eta non edozein arte-kultur ekintzak leku hartu dezakeen:

Helburua hainbat diziplinetako artistei haien lanak aurkezteko posibilitatea ematea da, banaka edo taldeka, haien zabalkundea eta herritarrenetikiko hurbilketa handituko duten ekintzen bitartez.

Dei honetan nahi duen edozein artistak parte hartu dezake, ez du inporta zein arte mota egiten duen, ezta ze adin edo nazionalitatetakoa den.

Hautatuak diren lanak, Algortako erdialdeko gunetan izango dira erakutsiak/landuak: plazetan, parkeetan, etorbideetan eta Bihotz-Alai plazan udaletxeak prestatzen duen karpa eta eszenatoki handian.

Dei honetan parte hartzeko pdf formatuan dagoen dossier bat bidali behar duzue (10 MB max.) hurrengo helbide elektronikora: [info@garrobi.com](mailto:info@garrobi.com) (Asunto: Propuesta oara GART'15), maiatzak 15a baino lehen:

- Artista edo Taldearen datuak
- E-mail edo kontaktu telefonoa
- CV txiki bat eta proposamenaren laburpen bat
- Proposamenaren fitxa tekniko bat (diziplina bakoitzerako desberdina)
- Behar izanez gero, zerbitzu teknikoak
- Argazkiak edo Web link bat, bideoak etab.ekin
- Muntaia egiteko edo ekintza aurrera eramateko aurrekontua



**Garrobi arte-kultur elkartea**